

HAURTZAINDEGIAN SARTZEKO IRIZPIDE ALDAKETA

Datorren urtetik aurrera zozketaz egingo da

Lehen aurrena jaiotako hamaseiak sartzen ziren. Datozen urteetarako hogehita laura igotzekotan dabil udala



Gaztelu puzgarriak ere ez dira haurtzaindegi txarrenak. Merkeagoak bai behintzat!

Azkarrena eta bizkorrena. Orain arte, esaera zaharretik gertu zebilen *Traspakarreko* haurtzaindegian sartzeko legea. Datorren urtetik aurrera zozketak aginduko du.

BERROGEI ESKAERA ETA HAMASEI TOKI

Jaio, 130 ume inguru jaiotzen dira urtean -Latxunbe Berrin

gehiena-, baina, haurtzaindegi-rako eskaerak 40ren bueltan ibiltzen dira. Tokiak, ordea, 16.

HOGETA LAURA DATOZEN URTEETAN

Aurrekontuek utzi ahala, urteroko toki berriak ugaritzeko-tan dabil udala. Noski, horrek, lehen denera 56 haur daudenez, 80ra arrimatzea dakar. Milioietan gora, alegia.

ZEIN EGITEN DA KARGU

Ume politikak ere, badu bere koxka: 64 milioi orain, eta gutxi barru dexentez gehiago. Zeinek ordaindu behar luke zerbitzu hori? Oraingoan, hamarretik bederatzi udalak ari dira ordaintzen. Eusko Jaur-laritza, berriz, hamarretik bat eskas. Hala behar duen? Azkenean, gurasoak galtzen. □



Batez beste, punta-punttako denboraldia egiten ari dira hernariko arraunlariak. Argazkian bateleko koadrila, aurtengo Gipuzkoako Ligako Bandera astintzen.

Trainerilak Bandera!

Armintzako itsaso txarrean, Bizkaian, atzean utzi zituen Santanderreko Maruca (21") eta ondarrutarrak. Axier Olano patroizutela, J. Etxabe, A. Elozegi, J. Arregi, M. Mujika, A. Cia eta A. Gorrotxategik poz ederra eman diete herriko arraunzaleei! Traineruetan, *Elorrabi* 78 12garren Trintxerpen. Adituen hitzetan: "minutuko 34 palada eta axaletik". Bandera Irurera: *Santiagotarrak* nagusi. □

■ANDREKALEKO JAIAK

Omenaldiak, kartagi-roa eta sardina erreak



Kale honetan ere, pareak eta jokua ez ziren beti eskutik izango.

EGURALDIAK ere lagunduta, giro ederrean ospatu zen Andreakaleko festa atzo. Goizean omenaldiak izan ziren, eta arratsaldean kale bete jokalarik. 8 bikote musean 4 tutean eta beste 4, eskoban. Jokalari, ikusle eta besterik gabeko jatunek sardina jan paregabea egin zuten, ondorenean, Plaza Berrin. Handik aurrerakoak ez dakizkigu.

OMENDUAK

Mallutarrak (Manoli eta Manuel Olano) omenaldi hunkigarria jaso zuten atzo. Baita Cuevas eta Portalondokoek ere, Andreakaleko denda zaharrenak izateagatik. Manoliri lore sorta bat, Manueli, berriz, Andreakaleko aginpidea ematen dion makila. Azkenean, berriz, lauei aldaba bana. □



MANOLI OLANO

OMENDUA

"Parranda, hoixe egingo dedala. Zurruta pixkat egin eta animoso jarriko gea."



MANUEL OLANO

OMENDUA

"Oain ze ein bihar dit?"

Galdetu dio Joxe Sagarnari *Alkate* bas-toia eman dionean.

Bihar eta etzi ez da Kronikarik izango

Zenbaitek ez dauka garbi Kronika noiz ateratzen den. Ostunetik astelehenera ateratzen da. Astearte eta asteazkenetan jai egiten du.

TELEBISTAK
BIDEOAK
BIDEOKAMARAK
ETXE TRESNAK

expert



ANEXO

Segundo Izpizua, 21
Tel. 943 55 03 81
20120 HERNANI

Bihar 64 urte ‘gerra’ hasi zela

Zenbat fusilatu, frentean hildako, zauritu, elbarritu... Hernanik sufritu zuen berea.



UZTAILAREN 18an izan zen *altxamendu naziola*, 1936an. Zenbaitek entzundakotik daki, beste zenbaitek hori ere ez; baina, badira oraindik buruan bizi dutenak.

FUSILATU GALARRETAN
Garai hartan, 6651 biztanle zituen Hernanik. Gerra Zibilean 200 inguru fusilatu zituzten frankistek. Kontuak atera zer Txikizioa.

Galarretan “garbitu” eta *Cuesta de la muertetik*, Zinkoenera; handik Kale Nagusian barrena kanposantu-

raino. Zaborraren karroan karraiatzen omen zituzten, “hankak zintzilika, besoak tantoka”.

BONBARDEOAK

Burgosetik ateratzen zen abioia Hernanira, *Larrauri* delakoren bat piloto zuela. Laupabost leku jakin bonbardeatzen zituen, bai baitzekien “polborina” nontsu zegoen. Sirena entzun orduko herritarrak auzoko babestokira, errezoetan sufritzera.

FRANKISTAK PRESO

Loiolako altxamenduari eutsi

eta nazionalistek frankista asko hartu zuten preso. Agustinatako konbentuan edukitzen omen zituzten ondo zainduta, CNT-koek hartu eta fusilatu egin nahi zituzten-eta.

BASERRIEI SU

Baserriak ere erre zituzten Santa Barbara inguruan. Belgikako merzenarioak jardun zuten lantegi horretan.

Herria tristurak jan zuen puska baterako. Zeinek zein salatuko, nor faltako... Aldian behin, komeni izaten da gogora ekartzea. □

HITZ BITAN



✓ SAGARDO EGUNA

‘Utzi Hernani Pakean’ plataformak, azken fidantzak ordaintzeko, antolatutako sagardo egunak jende asko bildu zuen Tilosetan. Antolatzaileak gustora daude.

✓ TXIRRINDULARITZA

Kaiku taldeko jubenilak bikain aritu ziren atzo Aztirian. Fran Bizente bostgarren sartu zen eta Aitor Marcos zortzigarren. Gainerakoak ere punta puntan ibili ziren bukaerarako etsi bazuten ere.

✓ MOLOTOFF IRRATIA (FM 99.2)

Irratia bere bidea zehazteko eztabaida prozesuan da. Aste honetan bi bilera izango dira jendearen iritzia biltzeko. Bat bihar eta bestea ostegunean. Biak Gaztegunean 20:00etan.

✓ OMENALDIA

Iñigo Elkoro “Tranki”k omenaldi beroa jaso zuen atzo Tilosetan. Urte erdi pasa kartzelan igaro ostean asteazkenaz geroztik etxean da. □


HERIOTZAK

Juana Urruzola Huizi.

Atzo hil zen 67 urte zituela.
Elizkizunak gaur 19:00etan Parrokian

MENDIRIZ MENDI

Lau egunetarako Pininioetara datorren asteburuan



MENDIRIZ MENDI elkar-
teak datorren ostiraletik aste-
arterako mendi ibilaldia
pronto du; 3000 metrotik
gora ibiltzekoa, gainera:
Bachimala (3.177 m.),
Eristes (3.053) eta Ibón del
Plan lakua. Izen-emateko le-
henbailehen Mendiriz Men-
diko lokalean bertan: Iturre-
gin Plazan (Aristizabal igoz,
erdiparean ezkerretara); aste-
lehen, ostegun eta ostirale-
tan, 20:00etatik 21:00etara;

☎943-332745.

Madalenetan eta Santio-
tan ordu txikietan gorputza
zikindu beharrean sasoiko
nahi duenak...□

☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943-550093
- ▶ Udaltzainak: 943-333288
- ▶ DYA: 943-464622
943-335533
- ▶ Anbulatorioa: 943-557750

✚ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: **Sagastiberri**
(Urbietan, 7 ☎ 943-552941)
- ▶ Gauez: **Sagastiberri**
(Urbietan, 7 ☎ 943-552941)

ASTEARTEA

- ▶ Egunez: **Chucila**
(Kardaberaz, 48
☎ 943-551793)
- ▶ Gauez: **Chucila**
(Kardaberaz, 48
☎ 943-551793)

ASTEAZKENA

- ▶ Egunez: **Bulnes**
(Etxeberri. ☎ 943-557738)
- ▶ Gauez: **Bulnes**
(Etxeberri. ☎ 943-557738)

**Zure
publizitatea
hemen**

HERNANIK
kronika

☎ 943 330899

Kronika@topagunea.com